

Kintsugi

Harkaitz Canok

GoiEner fabulatzen du

Zirriborroak eta gero

Gipuzkoako bilduma #0



Zirriborroak eta gero



ZIRIBORROAK ETA GERO

Ekoizlea

Azala Kreazio Espazioa

Proiektuaren ideia eta sorkuntza

Arantxa Mendiharat, Ixiar Rozas, Idoia Zabaleta

Aholkulari zientifikoa

Unai Pascual

Koordinazioa

Arantxa Mendiharat

Bildumaren diseinua

Ibon Saenz de Olazagoitia

Komunikazioa

Teklak. Komunikazio eta Audientzien Estudioa

Webgunea

La Debacle

GIPUZKOAKO BILDUMA #0

Idazlea

Harkaitz Cano

Alternatiba

Goiener S. Coop

Ilustratzailea

Arrate Rodriguez

Zuzentzailea

Amaia Apalauza

Grabazioa eta soinu edizioa

Maite Larburu

Alternatiben inbentarioa

Maite Fernández Betelu

Banatzailea

NOIZ

Inprimaketa

Gráficas Dosbi

Lehen edizioa

2021eko urtarrila, Lasierra (Araba)

Erakunde laguntzaile nagusia

Kutxa Fundazioa

Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua

Entitate laguntzaileak

Diario de Noticias de Álava

Hala Bedi Irratia

Kaxilda

Lege-gordailua: LG G 00005-2021


Lan hau Creative Commons-eko Aitorpen-EzKomertziala-PartekatuBerdin Nazioarteko 4.0 lizentziaren pean dago (CC BY-NC-SA 4.0).



Kintsugi

Kontakizunak eta fabulak
mundu posibleei buruz

zirriborroaketagero.net



*Son nata a lagrimar / Son nato a sospirar,
e il dolce mio conforto,
ah, sempre piangerò.*

*Se il fato ci tradi,
sereno e lieto di,
mai più sperar potrò.*

Georg Friedrich Händel, *Giulio Cesare in Egitto*

1

—Beste bat. Hirugarrena hilabete honetan.

—Ziur zaudete?

—Etorri eta ikusi zerorrek.

Kontsulta utzi eta neonatoen igaroguneraino egin du, pauso presatian, zaintza berezien gelara heldu arte. Bidean, negutegiko palmondoen artean jarritako hamaketan kulunkatzen dituzte guraso bilakatu berriek beren haragi-egindako-esperantza-hilkorrak, «euskara jatorrean bizitza osoan *jaioberri* deitu izan zaien horiek», Hamaika Agirrek esango lukeenez. Händelen kantatak abesten ari dira Slavoj Žižek Unibertsitate Libreko koruko gazte boluntarioak, guraso hasiberrien lasaigarri eta haur munduratu berrien entzumenaren pizgarri.

—Arazorik gabe bereizi dizkiogu, baina parte eman beharrea gauda. Hemen sei izan baditugu urte hasieratik... Ez da zaila kontuak ateratzea. Gurea baino handiagoak diren jaiolekuetan ere gertatzen ariko da, ez daukat zalantzarik horretaz, Ilargi.

Gorroto du bere izena esatearen limurkeria merke hori; areago, osorik esan beharrea, berak eman ez dien konfiantza hartu eta erdizka esaten dutenean.

—Badakigu familia loturarik baduten?

—Datuak gurutzatzea izan zen egin genuen lehen gauza. Eta ez. Ez daukate inolako harremanik.

—Kasu bakanak dira, honenbestez.

—Bakanak, bakanak... Akaso bai, baina hedatzen hasiak... Hau icebergaren erpina besterik ez da.

Jaioberrien sailekoak beti izan dira apur bat alarmistak. Ohituegi daude dena ongi joan dakien, eta asaldata egiten dira kontua aurreikuspenetatik milimetro bat apartatu orduko. «Hainbeste negutegi, hainbeste esperantza. Hainbeste Händel eta hainbeste palmondo karibetar...», pentsatu du Ilargiberrik, amorrazio apur batez. «Jarriko nituzke nik hauek polipsikotraumen sailean astebetetz lanean; espabilatu beharko lukete ederki».

—Pausorik pauso. Inguruko jaiogune edo sasoiguneek jakinarazi dute antzekorik?

—Ez, baina...

—Espekulazio hutsa da, orduan...

Espekulazio hitz gogorra da. Zuzentasun politikoak eta deontologia kodeak lankideekin halakorik ez erabiltzea galdatzen dute, baina beranduegi jabetu da Ilargiberri. Iraindua sentitu da neonatoetako fakultatiboa. Alarmista izateaz gain, azal leunekoa da, nonbait.

—Logikoa ematen du hori pentsatzeak. Guraso gazteak dira kasu guztietan, Ilargi: genetikoki ez du inolako azalpenik. Sekuentzian irakur daitekeen mutaziorik ere ez dago. Eraitza guztiak normalak dira eta...

—Agian zerbait pasatu zaizue oharkabeen. Agian sistema informatikoaren akatsa da. Genomaren irakurketa arazo bat...

—Lehen aldia litzateke. Gainera, bi aldiz ziurtatu dugu.

Ilargiberrik diagonalean irakurri du txostena ninigailuan.

—Eta eztarria behar bezala duela diozu? Patologiarik gabe, dena ondo?

—Guztiz arrunta, anatomikoki eta funtzionalki. Eztarri zein aho. Negarrez lehertu da ezpainak desjosi dizkiogun orduko...

—Seinale ezin hobea... Zein da arazoa, orduan?

—Guztiz ezohikoa dela. Ez da sekula halakorik gertatu.

Ilargiberrik zalantza une bat izan du erantzun aurretik. Txostena nini ertzera bidali eta minimizatu egin du kliska batean. Betazalek olatu batek bezala miazkatu dizkiote begi mintzak. Uhina pasatutakoan, harea leun azaleratu da, eta erabakia, irmo.

—Goizegi da ondorioak ateratzeko. Ez gaitezen txarrean jarri.

Ilargiberri bulegora itzuli denean, zain dauka Hamaika Agirre, fakultateko lagun zaharra. Minbizia robofarmakologia arruntaren bidez sendatzen hasi eta Onkologia Saila itxi zutenetik, harat-honat ibiltzen da sasoigunean, zer egin oso ongi ez dakiela.

—Egia dun beste kasu bat izan dugula ospitalean?

—Gaurkotu hizkuntza hori, Hamaika. Badituk hogeitun urte *sasoigunean* lan egiten duala. Hau aspaldi ez duk *ospitale* bat.

—Zirikatzeagatik esaten dinat.

Hasperen egin du Ilargiberrik. Ezer argitzen ez duela ikusita, Hamaika Agirrek zuzen galdetu dio:

—Zurumurrua egia dun, orduan?

—Bai.

—Eta zer egingo dun?

Hausnarrean dabil Ilargiberri.

—Hik zer egingo huke?

Ironiko bezain serio, aurrez aurre esan dio, bere begi grisetan fede osoa izaki, fakultate garaian bezalatsu orain:

—Zer egingo nukeen? Ezpainak desjosi, jaioberri guztiei legez karbono dioxidoaren neurgailua txertatu, eta bizitza krudel honetara ongietorria egin, negarrez, kexaz eta txorakeriaz bete dezan mundu honetan dagokion zatiñoa.

Agian sobera dago esatea Hamaika Agirre doktoreak ez daukala seme-alabarik.

Egia esan, ez da guztiz harritzekoa neonatoetako en kezka: hozkia ematen du jaioberrien ezpain itxietan laser-esmeraldadun izpia sartzeak. Ilargiberri bere seme-alabek hainbeste gorroto dituzten 3Dko film zaharkitu haietako batekin gogoratu da. XX. mendeko jostunei buruzko dokumental bat, hain zuzen —horrela deitzen zieten uste du, *dokumental*—. Liluratuta geratu zen ikusi zuenean nola iristen ziren batzuetan trajeetako jakak patrikak lotuta. Nola eten behar izaten ziren puntadak banan-banan oihalean leku egin eta patrikak irekitzeko. Beste bizitza bat eta beste garai bat zen hura. Sastreek eta sendagileek guraizeak erabiltzen zituzten aroa. Sasoiguneei artean *ospitale* deitzen zitzairen garaia. Bakterioz eta kutsaduraz betetako garaia. Egia da disparate hutsa zela dena Koordinazio Algoritmiko Globalaren Aroaren aurretik, baina, askoren ustez, zorientsuagoak ziren beren aitona-amonak, ezjakin eta bizizale... Jantziek patrikak zeuzkaten sasoi hartan, eta jendeak germenez betetako gauzak sartzen zituen haietan. Esandakoa: disparate bat. Gaur egun, inork ez daki zer den patrika bat, «patrikak beteta eduki» esamoldea erabili erabiltzen den arren oraindik, doleuroz ongi hornituta daudenei buruz mintzatzeko. Hizkuntzaren fosilak.

Hamaika Agirrek umoretik tiratu nahi luke, lankidea apur bat animatzeko.

—Entzun dun Norvegiako ospitale batek energetikoki beregaina izatea lortu duela gaixoen sukarrak sortutako beroari esker?

—Benetan?

Hamaika Agirre barrez lehertu da.

—Bai zera! Gaur goizean dena sinesten dun.

—Gauza arraroagoak ikusi izan dituk...

—Non daukan burua, Ilar? Zerbaitek kezkatzen hau? Hi ez haiz betikoa.

Hori da urritzea hori: Ilargiberri Ilargi bihurtzea, eta Ilargi Ilar. Baina Hamaikari dena barkatzen dio.

—Egia esan, Doltzane eta biok kezkatuta gaudek etxean Gerizperek.

—Gazteena dun Gerizpe, ala?

—Bai, Kimu unibertsitatean zagok, baina Gerizpek... ZeroKontsumo taldeetan sartuta dabilenetik ez dik beste ezer buruan.

—Musikazale amorratua ez zunan? *Kilimatronic* talde batean jotzen zuela uste ninan.

—Argindarrari muzin egiten ziok orain: musika zuzenean baino ez dik entzuten, anplifikaziorik gabe, energia gastua murrizteko... Obsesionatuta zagok bere Karbono Mantxarekin. *Kintsugi* ikastaro batean ere apuntatu duk.

—*Kintsugi*?

—Gauza apurtuak konpondu ondoren pitzadurak agerian uzten dituen antzinako teknika japoniar bat. ZeroKontsumista guztiak zabilzak horretan.

—Eskulan bat, beraz. Zer kalte zekarren horrek? Ez huke hainbeste kezkatu behar: belaunaldi bakoitzak bere borrokak. Orain, Karbono Mantxa ttipia izatea dun sexy izateko modua... Gu beganoak egin gintunan denok hogeitau urte bete orduko... Ez al haiz gogoratzen?

—Ez duk gauza bera.

—A, ez? «Antzararen gibela nire gibela da!». Tolstoiren esaldia ipurmamietan tatuatu genueneko ahaztu zain, ala? Nola zunan ba?

Ilargiberri irribarre egin du estreinakoz. Norvegiako gaixoen sukarrak sortutakoa baino energia gehiagoz, ziur asko.

—«Hiltegiak existitzen diren bitartean, izanen da gudalekurik».

—Horixe bera. Eta hik azpian Tolstoiren izena erantsi huen, egile eskubideez kezkatuta edo! Bakarra izan hintzen tatuajearen egilearen sinadura jartzen! Ez esan ezabatu egin dunala...

—Ez, ez diat ezabatu. Hortxe segitzen dik. Eta hik?



—Tolstoi ipurmamietatik kendu? Lehenago hill! Ahaztu al ditun abeltgien aurrean egiten genituen eserialdiak eta sabotajeak?

—Sabotajeak esatea askotxo esatea duk, Hamaika...

—«Jabetza pribatua bortxaz urratzeagatik» epaitu gintiztenan, Ilargi. Epaitu eta erruduntzat jo! Eta ez behin bakarrik... Hire semeak bazakin hori guztia? Kontatu dion Gerizperi? Puntu asko irabaziko hituzke.

—Gureak ekintza baketsuak izaten zituan beti.

—ZeroKontsumistak ere baketsuak ditun, ala? Gehienak, behintzat.

—Hik esan duk... *Gehienak*. Gehienak ez dituk guztiak.

Hamaika Agirreri erabat mudatu zaio aurpegia. Kezkatuta dagoenean, antxume batenak bilakatzen zaizkio begi grisak. Eta antxumeeek ez dute federik beren buruan. *Hiltegiak existitzen diren bitartean, izanen da gudalekurik*.

—Zer esan nahi dun? BETren¹ gaztedietan sartuta dagoela?

Ilargiberrik ez du erantzun. Orain bera da ezpainak zigilaturik dauzkana.

2

—Aireportuetan, hala ibiltzen zen jendea garai batean; galdetu zuen guraso edo aitona-amonei, bestela: argindar-sarrerak non, kablea han. Kargagailua non sartuko, entxufeen bila itxurak galduta, gailuak bateriarik gabe geratzear zeudenean ostera ere kargatu ahal izateko. Inork badaki zer den *smartphone* bat?

Isiltasuna.

—Inork ez? Bota lasai, ez izan hanka sartzeko beldurrik, zerbait izango duzue buruan... Ez duzue hitz hori sekula entzun?

Ikasleetako batek besoa altxatu du.

—Bai?

—Zer da *entxute* bat?

Doltzanek irribarre egin du. Gustatzen zaio gazte eta berdeekin lan egitea.

—Egia, barka. Entxufe bat... Batzuetan, adarretatik joan, eta ahaztu egiten zait oinarritzkoenak azaltzea... Entxufe bat, gailu-energetikoki-ez-beregainek funtziona zezaten hormetara atxikita egoten zen lotune ttipi bat izan ohi zen, argindarra hartzeko. Etxeak entxufez josita zeuden hainbeste urte ez dela, eta entxufe bakoitzean tresna bat lotzen zen.

¹ Bagenizkio Ekintza Taldea.

Doltzane «hainbeste urte ez dela» ahoskatzen duen bakoitzean ohartzen da urte askotxo daramatzala gauza bera errepikatzen. Egiari zor, badira, bai, «hainbeste urte». Mordoxka bat. Eta bizi itxaropena erruz luzatu den arren, urteek 365 egun izaten jarraitzen dute. Apur bat zentzugabea da denbora neurtzeko modu horri eustea; eskala hori ez da jada naturala, urteek galdu dituzte jada zenbaketaren poza eta bete ahala sortzen zuten estimua.

—Kableak sartu eta handik zurrupatzen zuten energia, nolabait adierazteko... Azaluhin teknologia ez zegoen garatua oraindik. Grafenoa zen eroale erabiliena, azkarrena...

Algara egin du norbaitek.

—Grafenoa? Eta janaria nola prestatzen zuten, Nikoro robot batekin, ala?

Barrez lehertu dira guztiak ateraldiarekin, baita aspertuta eta lo ziruditen ikasleak ere.

—Nikoro robotak eta gailu-energetikoki-ez-beregainak 2033an debekatu zituzten Europan, nahiz 2039ra arte legezkoa izan haiek fabrikatzea AEBn eta Txinan. Egun, dakizuenez, pertsona bakoitzak halako bi etxetresna baino ezin ditzake bere izenean eduki.

Besoa altxatu duen ikasleak jarraitu du hizketan:

—*Smartphone* bat, orduan, *phoneskinaren* aurrekaria-edo izango zen, ala?

—Horixe da, Ikerbis. Bururatzen zaizue zer itxura izan zezakeen?

—Arropetan integratutako komunikazio tresna bat, 3Dko film zaharretan ikusten direnak bezalakoa?

—Ez, horiek *dressphoneak* dira. Geroago etorri ziren. *Smartphoneak* are lehenagokoak dira, eta ez zeuden integratuta: jendeak oraindik patrikan eramaten zituen...

Zurumurru bat zabaldu da gazteen artean. Berriro ere bere adinak salatu du.

—Zer da *patrika*?

Doltzane ez daki nola jarraitu. Zer esango die? Koaderno baten tamainakoak zirela telefono haiek? Petaka baten neurrikoak? *Koaderno*. *Petaka*. Gazte hauek ez dute sekula begien bistan halakorik izan; objektu eta hitz arrotzak dira haientzat. Ez da erraza nerabeei Antropologia Museoa erakustea. Arreta jartzen duten bakanez exotismoarekiko jakin-minez so egiten diote; gehienek, disimulurik gabeko errukiz. *Dinosaurio* hezur batekin tinbal bat kolpatzean datzan komunikazio sistema arrotza azaltzen ari balitzaie bezala. Ulertezina zaie nola bizi zitekeen gizakia hain modu primitiboan, «hainbeste urte ez dela».

Goxone Salas artistaren *Horma terapeutikoa* instalazioa dator hurrena, baina konplexuegia iruditu zaio adin horretako ikasleei azaltzeko. Edo gazteegiak bisitariak instalazio horrentzat, nondik begiratzen den. Unibertsitateko azken urtekoek ere doi-doi harrapatzen dizkiote erreferentzia horiek. Hobe ez saiatzea. Bere betiko *speecha* botatzeko gogoz geratu da, hala ere.

«Imajinatu hau: jende saldoa txabolara heltzen da, nork bere kargagailua daukala, eta ordu asko daramatzate jada basoan barrena eta mendian gora oinez. Akituta daude, baina ez dira akituta dauden bakarrak... Patrikako telefonoak ("zer da *patrika*?", "zer da *telefono*?", "zer da...?"), barka, *smartphoneak*, bateria agortuta edo bateria oso urriarekin dauzkate. Txabolara heldu orduko entxufatu dituzte guztiak, kargatzeko asmoz. Arnasa lasai hartu dute. Baina berehala jabetu dira entxufeak ez dabiltzala, karkasa hutsak direla, ez daudela argindar sareari loturik. Kablea ongi dagoen ziurtatu dute; elkarri begira daude. Ez dago entxufe bakar bat ere funtzionatzen duenik. Gezurrezko entxufeak dira. Izu-laborria, kezka, ezina, bertigoak eta izerdi hotzak. Abstinentzia sindromea. Dependentsiaren onarpenaren aurreko amildegia zabaldu zaie oinen pean... Entxufeak dauden hormaren bestaldean ez dago ezer, goroldioa eta landare igokariak baino ez, arrosa ederrak tarteka, sasia arrosadiaren ederra orekatzeko; horma faltsua da, eta faltsuagoak entxufeak. Goxone Salasek mende honetako 20ko hamarkadaren amaierako tekno-detox zentroak hartu zituen oinarritzat instalazio hau sortzeko, tekniketako bat huraxe baitzen, adikzioak jotakoek hainbat egunez gailuak baztertu eta naturarekin elkarbizitzan bolada bat pasatzea, beren menpekotasunaz jabetu eta hura kontrolatu bitarte. Tekno-detox zentroak, tamalez, ez zituen herrialde gehienetan osasun publikoak finantzatzen, eta, aseguru pribatuen esku zeudenez, oso garestia zen halakoetan egonaldi bat egitea: dirudunek eta izar mediatikoez baino ez zituzten eskuarki baliatzen ahal...».

Hori eskuarki esaten zuena. Eta gaur gehiago ez esatea erabaki duena.

3

Karaktere japoniarrez idatzita dago *Kintsugi* atelierreko sarreran. Objektuen biziraupenari egindako aldarri ozena da: apurtutakoa konpondu eta iraunaraztea helburu, betiere zauriaren joskurak, pitzadurak eta zainak harrotasunez agerian lagatzekotan. Apurtutako gauzen gorazarre bat, bai, baina baita gauzak nork bere eskuekin egitearen poderioz

datorren zorionaren eta orekaren pizgarria ere. Berreraikitzearen poza konpartitzen dute gazte horiek guztiek, eta nahi lukete egunen batean zorion hori berbera populazio osora hedatzea. Asteroko hamazazpi lanorduen trukean soldata unibertsala ezarri zenetik, bada nagikeriarako astia eta nork bere bokazioa garatzeko denbora. Bada nagikeria bere bokazio bilakatu duenik ere, baina gehiengoak beste bide bat hartu du. Lan fisikorik gabe ez baitago ez bizigarririk, ez atsedeen beterik.

Kintsugi eskolak amaitzean, ordea, atelierrean geratu diren gutxi horiek beste helburu batzuk dauzkate. Diziiplina japoniar berreraikitzaile horrekin lotura adina kontraesan dituzten asmoak. Konspiraziorik gabe ez baita asetze intelektualik.

Kintsugi senseia erretiratu bezain pronto, niniak begiak baino handiagoak dituen gizon gaztearen inguruan bildu dira gainerakoak. Leun-leun hasi da hizketan, baina su baxuan abiatu dena bor-borka hasi da berehala.

—Ez, ez gaude ados gure eskualdea behin amestutako utopia dela diotenekin. 2020ko pandemiaren ondoren etorri zen berdemokrazia alde globalak akaso izan zuen zentzua gure aurreko belaunaldiarentzat. Sor-tzen duguna baino ez dugu kontsumitzen, ados. Baina aski da hori? Ez dugu zertan gure gurasoek emandako aurrerapausoak gutxietsi... Nekaritzat mundua geure biorritmoen ardatzean zegoela onartu eta baratzez bete zirela gure teilatuak? Egia. Hiriko populazioaren % 20 herrietara itzuli ostean biztanlegoaren fluxu naturalak birbanpartu zentzuzko bat ekarri zuela? Ez dut nik hori ukatuko. Etorkinei ateak zabaltzeak populazioa gaztetu eta biziberritu zuela? Ez dago duda izpirik horretaz. Energia zikinen gaineko zerga gogorrek paradigma aldaketa bat ekarri eta industria kapitalista berdetu zutela? Zalantzarik ez. Azpiegitura faraonikoak debekatu eta gobernuak eraikin berriak egiteko lizentzia guztiei hamarkada oso batez uko egiteak birgaitze politika jasangarrien mesedeen ikusgarritasuna ekarri zuela, populazioak inguruan zuenaren aurrean begiak ireki eta kontzientzia hartzea? Jakina! Energia nuklearra mundu osoan baztertzea garaipen historikoa izan zen, halaber. Halatsu esan genezake suntsipen handiko armen desagiteari buruz ere. Munduko pobrezia amaitutzat eman zen 2021ean, Txinan. 2035ean, Afrikan eta Hego Amerikan. Demokrazia algoritmikoari esker, galde-eskeak, premiak eta asetzeak askoz hobeto daude gaur egun doituta. Baina ez gaitezen engaina: demokrazia algoritmikoa ez da saldu ziguten bezain gardena. Diruak betikoen esku jarraitzen du, eta globalizazio berdea *killer* isila da... Erresistentzia modu berriak pentsatu eta baliatu beharrean gaude,

adiskideok... Eta lehen pausoa badakigu zein den: elektrifikazio xahutzaille hau geraraztea, kostatzen da... kostatzen da...

«Alexdeik bai, bazakik hizketan», pentsatu du Gerizpek, etsita bezain miretsita. Arrazoiz da bera eskualdeko taldeburua.

4

—Aurten oporretara joango gara, Gerizpe.

—Oporretara, nora?

—Lanzarotea, Kanarietara.

—Irla batera? Zuek zoratuta zaudete! Debehatuta dago.

—Lanzarote Europa da. Baimenduta dago bidaiari interkontinentala ez bada. Salbuespen bezala.

—Ez barrerik eragin: Kanaria uharteak Afrika dira.

—Espainiako estatuaren parte, edozelan ere... Askotan hitz egin dugu horretaz...

—Lurralde kolonizatua...

—Kontua da baimena eman digutela, Gerizpe.

—Baimena zertarako? MEHEtik² atera eta legea urratzeko?

—Ez da legea urratzen, baldin eta bidaiatzeko baimena badaukazu.

Gainera, hamar urte daramatzagu kanpora irten gabe.

—Eta horregatik merituaren domina ematea nahi duzu?

—Gerizpe, faborez...

—Kimu ere etorriko da?

—Ez. Zure arreba tesia amaitu behar du.

—Jakina, Kimuk beti dauka aitzakiaren bat. Kimu berezia da. Kimu...

—Hara, Geriz: Ilargi *burn out* koadro baten atarian dago... Baimena eman ez, medikuak derrigortu egin du oporrak hartzera...

—*Derrigortu*, horixe... Eta nik sinetsi! Zuen alderdia Osasun Sailaren jabe egin denean, *kasualitatez*, kanpora joateko baimena lortu duzue... Ederra pagotxa! Ez esan susmagarria ez denik...

—Ez duzu zertan gurekin etorri, nahi ez baduzu...

—Horixe ez naizela joango! Familia Unitateko Mantxa disparatu egingo zaigu hirurok Kanarietara bagoaz.

Atera du betiko gaia. *Familia Unitateko Mantxa*. Bere mantxa ttipia baino ttipiagoa izatea aski ez, eta familiarena ere ttipi mantendu nahi... Harrokeria hutsa iruditzen zaio matraka hori Doltzaneri. Karbono dioxido madarikatua. Nerabe madarikatuak. Eta Ilargiberri? Non arraio

² Mendebaldeko Euskal Herrien Erkidegoa.

sartu da? Borrokarik latzenen erdian, eklipsea. Sasoiguneko zuzendari izendatu zutenetik, denbora gehiago pasatzen du han etxean baino.

—Ilargik eta biok pentsatu dugu aukera polita izan zitekeela elkarrekin denboratxo bat igarotzeko.

—Ez kontatu nirekin. Badakizue hegazkinak hartzea nire printzipioen kontra doala.

—Elektrikoa da, Geriz.

—Hibridoa, esan nahiko duzu.

—Hori esan nahi nuen.

—Okerrago oraindik. Hibridoak eta argindarra... Puaj! Izurri elektrifikatua! Elektrizitatea *killer* isila da.

Izurri elektrifikatua. Elektrizitatea killer isila da... Nondik ateratzen ote zituen mukizua lelo biribil haiek? Mende hasierako musika talde baten kantuen izenburuak ematen zuten. Lekutan geratu ziren *perreo* sotil haiek, *reggaetoi* klasikoaren sedukzio fina, *pornobeat* festa iradokitzailak... Orain gazteek *climaxbeata* baino ez dute entzuten. Lardaskeria zabarra.

—Gasolioa gutxienez usaindu egiten zen.

—Gasolioa? Gasolioak zer usain duen ideiarik ere ez duzu zuk, Gerizpe.

—Zuk zer jakingo duzu...

Zartako bat emango lioke batzuetan semeari, baina Doltzanek bi falta etiko xahutu zituen Gerizperen aurrenerabezaroan, eta eskuak lotuta dauzka: hirugarren batek TTIPa³ aktibatuko luke. Seme nerabearekin leunegi jokatzeko duela iruditzen zaio batzuetan, hala ere. «Ilargi, non hago, zer larretan?».

—Opor laburrak izango dira. Astebete baino ez...

—Sentitzen dut, ama: beste plan batzuk dauzkat uda honetarako.

Doltzane dardarka dago pentsatze hutsarekin. Beren semeak «beste plan batzuk» dauzka udarako. Gutxienez oraindik «ama» esaten dio. Ilargiberriri hori ere ez. Ninigailuari kliska egin dio, Ilar semearen eta bien arteko elkarrizketara azaluhindu ote den ikusteko, baina *phoneskina* deskonektatuta dauka emazteak. Grabazioa eskatu baietz gero, egunero egiten duen bezala. Eztabaida guztiak diferituan bizitzeak ama hobe sentitzen laguntzen dio, baina ez du gauzak hobetzeko ezer egiten. «Zeharkako komunikazioa... Hori bai dela *killer* isila», otu zaio Doltzaneri, etengabe harremanaren autoebaluazioa egiteaz nazkatuta.

³ Tratu Txarren Ikuskaritza Protokoloa.



Eskandalua ez da nolana hikoia izan. AEBko presidente izateko hautagaiak dimititu egin behar izan du bere Karbono Mantxaren argazkia filtratu denean. Lau zentimetrotik gorakoa. «Lau zentimetro! Hautagai berdemokrata batek ez luke sekula bi zentimetrotik pasatu behar...», bota du Ilargiberrik, eguneko laugarren otordua egiten ari direla, behingoz hirurak elkarrekin.

—Lanera bizikletaz joan omen dun beti, bizitza osoan. Eta ez dun Kaliforniako estatutik hiru aldiz baino atera...

—Orduan nola iritsi dun lau zentimetroko orban karbonikoa izatera? Hain zaharra ere ez dun... Hor zerbaitek huts egiten din...

Gerizpe zirikatu nahian dabilta Doltzane eta Ilargiberri; zerbait esatea nahi lukete, baina hura seitana jaten ari da, etxeko teilatuan hazten duen errukula hostoz lagundua.

—Berdemokratak edo errepublikanoak, denak dira berdinak... —bota du azkenean, axolagabe, bere amei begiratzea saihestuz. Gero, platerak eta edalontziak kubo batean sartu, eta teilaturantz abiatu da.

—Ez dion ezer esan behar, Doltzane?

—Zer esatea nahi dun? Hire semea ere badun...

—Euri ura garbigailu gisa erabiltzea ez al dun gehiegizkoa? Zer egingo dinagu uda iristen denean? Zertarako erosi geninan ZeroKontsumoko ontzi-garbigailu bat? Gero platerak montzoiaren kapritxoaren arabera garbitu behar izateko? Zer urtetan bizi garela uste din honek, 2021ean, ala?

Ikerketa bat etorri zaio burura Ilargiberri, sumintzeko joera ere CO₂ eragile uste baino kontuan hartzekoagoa izan litekeela frogatu ei duena. Noiz helduko da haserrerik gabeko mundua? Koipe orban beltz baten eran sentitu du bere Karbono Mantxa eskumuturrean hedatzen.

—Gerizpek zion ez dela nahikoa ontzi-garbigailua beregaina izatea; finean, hura fabrikatzean argindarra xahutu zenez, kutsatutako objektua dela jada...

AEBko hautagai berdemokrataren dimisioaren hurrengo goizean, gimneskolan, lau urteko haurrek eskumuturra erakusten diete elkarri, beren Karbono Mantxak natural-natural konparatzeko. Gazteegiak dira oraindik bataren eta bestearen artean alde handirik egon dadin, baina horixe da errealitatea, haurtzaroan hasten dela estatusaren neurketa eta finkatzea. Orbanik ttipienak ziurtatzen du populartasuna. Hautes-kunde kanpainarik handiena herrialderik boteretsuenean: hura ere haurtzaindegian aurreikusi eta ispila zitekeen zerbait zen, funtsean.

Oinez iritsi dira baso erdiraino. Nola, bestela.

Gerizpek Siri aurkeztu die lagunei.

—Ziur ez zaituztetela honaino jarraitu?

—Hartu beharreko neurri guztiak hartu ditugu, Alexdei.

Sirik ile leuna du; beti izan du halakoxea. Agian horrek piztu du Alexdeiren mesfidantza.

—Jaiotzatikoa da, ez dut ile-leungailurik sekula erabili. Inoiz ez. Lehortu ere ez dut lehorgailuarekin lehortzen.

—Gure dekalogoia ezagutzen du, Alexdei. Fidatzekoa da. Siri, erakutsiezaiozu KMa.

Sirik, buzoaren mahuka bildu, eta zentimetro batera iristen ez den Karbono Mantxa erakutsi die denei. Haur batena ematen du. Liluraz begiratu diote besteek. Liluraz eta miresmenez. Ez zen egunero izaten hain mantxa ezdeus eta sexya ikusteko aukera. Alexdei sinetsi ezinda dago; ez zuen espero. Bere mantxaren erdia ere ez du neska horrek. Eta aurpegi zaildua dauka. Ez dirudi bera baino gazteagoa.

—Zu ez zara hemen hazi...

—Ez, norvegiarra naiz.

—Banengoen ba ni...

—Duela bi urte etorri ginen hona bizitzera, Urbasako haize erroten eraispena zela eta.

—Bere aitak MEHEko haize errota guztien plano xeheak dauzka, Alexdei. Irisguneak, kodeak... Dena. Elektrifikazio sare guztien berri. Erakunde publikoek hain motel egiten dutena geuk behartu behar dugun honetan —mitinlari ahotsa atera zaio bat-batean—, informazio ezinbestekoa jarriko du gure esku.

Txorakeria gutxi. Gerizperen bermearekin dator kide berria. Aldeko botoak: sei. Kontrakorik ez. Abstentzio bakarra: Alexdei.

«Ongi da», amore eman du Alexdeik, beharrezkoa dena baino hitz bat gehiago ebaki gabe, bere arnas aparatuak sortzen duen karbono dioxidoa gutxitzeko ahaleginetan balebil bezala, norvegiar iritsi berriaren ganako jeloskortasuna oso txarto disimulatuz.

Doltzanek sorbalda astindu dio, iratzar dadin. Ninigailuan goizeko seiak ere ez direla ikusi du Ilargiberrik. Zergatik esnatu du libre daukan asteko egun bakarrean?

—Igandoa dun... Gaur ez daukan jai museoan, ala? Utzi niri ere lo apur bat egiten...

—Aktibatu ninigailua, Ilargi. Hau ez zain gustatuko.

Begiak kliskatu ditu. Madarikazioa. Filtratu egin da albistea. Aurreikustekoa zen. Ezin zara neonatoetako gizatxar horiekin fidatu. Albistearen lerroburua besterik ez balitz, gaitz erdi, baina argazki bat ere bada zurrumurrua haragi egiten duena: ezpain josien argazki bat. Odola izoztu zaio. Hamaika Agirrerekin azaluhindu da.

—Ikusi dun?

—Zer erremedio.

—Denak hire zain zauden hemen, Ilargi. Sasoigunera etorri behar dun prentsaurrekoa ematera. Lehenbailehen.

Hamaika Agirrek *sasoigune* esan du, eta ez *ospitale*. Horrek ematen du egoeraren larritasunaren berri. Kontua ez dago txantxetarako.

Armani buzoa azalari itsatsi, eta gidaribako aerotaxi bati deitzeko eskatu dio, mesedez, Doltzaneri. Itxuraz, Ilargiren *phoneskina* sutan dago, eta ez dauka begi-ninia prentsaurrekoa prestatzeko ez beste ezertarako. Doltzane nekatzen hasia da Ilargiberriren neskame lanetan, baina badauki ez dela gaia ateratzeko unea.

—GoiEner taxi berderik ez zagon... Edozein aerotaxi eskatuko dinat?

—Popatik kutsadura! Ezin dinat gehiago itxoin. Eta ez dadila Gerizpe enteratu, badaezpada... Ez dinat berriro Familia Unitatearen Mantxarekin sesioan ibili nahi...

—Gerizpe ez zagon. Bart gauean ez dun lotara etorri.

8

Antropologia Museotik lapurtutako gasolio upelak izan dira Gerizperen ekarpena. Sirirena, berriz, nola ez, aitari ebatsitako planoak. Bikote ezinbestekoa izan da operazioa prestatu eta aurrera eramateko. Alexdeiren lidergoa zalantzan geratuko da hemendik aurrera; baldin eta dena ongi ateratzen bada, noski. Eskandinaviarrek eta holandarrek etorri behar izan zuten duela bost hamarkada baino gehiago teknologia hura indarrean jartzera; orain ere halatsu, haiei zegokien behiala ekologikotzat jo ziren gailu toxiko haiek guztiak erretiratu eta energia iturri berriekekin ordezkatzea. Erakundeek sustatutako deselektifikazioa motela zen, ordea, eta deus ez edo hutsaren hurrengo kontsumitzeko seta erradikal hura —moda bat, askoren iritzian— gazte errebeldeen kontua baino ez zen oraindik, guraso elektifikatuegien aurreko su ttipiko iraultza iragankorra. Su ttipikoa, orain arte: hori aldatzera zihoan.

Eta Bagenizkio Ekintza Taldeari esker aldatuko zen. Ez ziren bakarrak, jakina. Nazioarteko inguruabarrak eta kasuistika oso ezberdinak izanagatik, hainbat talderekin harremanetan zeuden jada; sabotaje koordinatuak hasi baino ez ziren egin. Txinak, AEBk eta herrialde eskandinaviarrek Afrikaren gaineko Eguzki Royalty kontinentalak zorraren zati bat barkatzearen truke erosi izanak berealdiko burbuila espekulatzaila sortu zuen munduko burtsetan. MEHEko eremuan, gobernu autonomoak GoiEner kooperatiba boteretsua desjabetu eta handik gutxira pribatizazio prozesu zalantzarri baten ostean CaixaDelli saltzean hasi zen gainbehera: kooperatiba horrek lan itzela egin zuen energia berdeen alde, urte gutxian argindar konpainia tradizionalen bezeria ia osoa bereganatzeraino. GoiEnerri esker, kontsumitzen zuen energia guztia modu beregainean sortzeaz egon zen MEHE 30eko hamarkadaren amaieran, independentzia politikoaren atarian. SEM⁴ hitzarmen berdeko kide izaki, lekuan bertan sortutako energia eskualdean edo inguru geografikoki mugakideetan kontsumitzearen aldekoak ziren, prezioen liberalizazioaren kontrakoak eta esportazio-inportazioa ahalik eta gehien murriztearen defendatzaileak. Handik gutxira, CaixaDellek funts putreei saldu zizkien, ordea, GoiEnerren akzioak, haien punta-puntako energia iturri berriztagarriak mezzohidrogeno bidezko sistema merkeago eta kutsagarriagoekin ordezkatzeko. Gerizperen eta beraren kideen ustez, derrigorrezkoa zen egoera hura desestabilizatu eta erregimen energetikoa iraultzea, berriz ere zerotik hasi ahal izateko.

«Elektrizitatea *killer* isila da». «Mundu elektrifikatu bat ez da ja-sangarria». «Gure argindarra besteen itzalaldiaren kolkotik dator». «Esan OFF». «OFFak ON egingo dizu». «Itzali kontsumoa». «Auzoan geratu, auzoan hausnartu». Antzeko leloak eta jarraibideak erruz hedatu ziren azken urteotan azaluhinetan zein azaluhinaren peko *deep skinwave* azpimunduan. Ez zen nahikoa gutxiago kontsumitzea; energia gastua zerora ekarri behar zen, «baita horretarako belaunaldi oso batek bere bailaratik atera gabe bizi behar badu ere». Bidaia luzerik ez. Gailu-energetikoki-ez-beregainei uko egitea ez zen nahikoa. Beregainak zirenei ere muzin egin beharra zegoen. Muturreko erabakiak hartu behar ziren. Horixe zen, Gerizperen ustez, Doltzanek eta Ilargiberrik ulertzen ez zutena. Ezkertiar eta berde usteko, eroso bizi ziren ama biak hilero beren doleuro parrastada jasoz; gazteei iraganari buruzko lezioak ematen bata, sasoigune xahutzaile elitista

⁴ Sare Elektrifikatu Minimoa, mundu osoko Herrialde Energetikoki Lerrokatu Gabeek 2029an sustatua.

bat zuzentzen bestea. Karbono Mantxaren neurgailua sinbolikoa zela sinesten zuten, isun gehigarri bat ordainduta gain har zeniezaiokeen zerbait. Inor ez zen jada bere kutsatze mantxaren tamainaz lotsatzen. Gazteak salbu.

Gerizpek Siriren mantxa ttipian pentsatzen duenero disimulatu ezin duen desio oldarraldi bat izaten du, baina badaki Sirirenarekin alderatuta bere orbana handiegia dela harekin bikotea osatu ahal izateko. Etsigarria: kasta sistema beti moldatzen da erreproduzitzeko, baita ekoekintzaile ustez aurrerakoien buruetan ere.

Alexdei pazientzia galtzear dago.

—Zeren zain hago, Geriz! Bota gasolioa!

On Kixote sentitu da Gerizpe une batez errota erraldoiei begiratu dienean. Gaur haize errotak, bihar mezzohidrogenoa, etzi auskalo... Bidoia zabaldu du. Eta gasoliorik ez balego? Eta gezurrezkoa balitz? Zer daki berak kimikaz? Ez da-eta benetako erregaia granada zuku batetik bereizteko gai! Lagunen aurrean barregarri geratuko dela otu zaio. Baina, burua kapusaiz estalita eduki arren, sarkorra da erregaiaren usaina; inoiz lehenago probatu gabeko droga zahar baten abantaila eta kontraesan guztiak biltzen ditu. Euforia eragin die usain bortitz horrek sudur zuloetan gora. «Beraz, hau da gasolioa», pentsatu dute denek batera, arnasten dutenaren izaeraren eta egitera doazenaren gaineko duda izpirik gabe.

Erregaiaren bortxa pizgarriak senidetu egin ditu komandokideak. *Erregai* hitzak berak beste zentzu bat hartu du tupustean.

9

Kazetarietara erantzun ezinik, estu eta larri dabil Ilargiberri. Hamaika Agirreretara dimisioa ematearen aukera aipatu dion arren, hark berehala kendu dio ideia burutik. «Ezta pentsatu ere, Ilar», esan dio, «Ezin dun amore eman gauzak okertu diren lehen aldian». Elikadura? Klima? Genetika? Egiaz, ez dauka erantzunik. Ez daki zergatik jaiotzen diren haurrak ezpainak josita. Eta izaki garatuagoak balira, hitz gogaikarrien eta hizkuntza anitzen energia dispertsiorik eta alfabetoen premiarik gabeko komunikatzeko modu berri eta isil bat dakartenak, adierazpide eta negoziatzeko modu arinago eta eraginkorrago bat? Kasu gutxi direla eta bakanak, konponbide errazekoak, horixe errepikatu eta errepikatu baino ez du egiten, baina ganibeta ahoan odol bila datoz kazetariak. Neonatoetako fakultatiboek azken ilaratik begiratzen diote, mendeku barearen imintzioa ezkutatu gabe. Aura salatari gisako bat





ere badute buruan, amorruren argi laranjakara, beren txima gorriztak kristalezko beiratearen kontra kiskaltzen ari balira bezala.

Kazetariak ere ohartu dira haien bizkarreko argi bizi horretaz. Beiraterantz jiratu direnean, itsutu egin ditu harridurak, eta itsutu neonatoetako fakultatiboen soslaiak biltzen dituen ezti koloreko argi geruzak. Su-festen bristadak datoz prentsaurrekoa ematen ari diren egongelako beiratearen atzetik. Ez da su-festa sasoi, ordea. Su-festak debekatuta daude aspaldi. Prentsaurrekoa ahaztuta, denak inguratu dira beiratera, kazetari, laguntzaile zein fakultatibo... Izaki-sasoitzerantz-bideratuak ere bai; alegia, Hamaika Agirrek zirtolari dagoenean esango lukeen legez, «euskara jatorrean bizitza guztian *gaixoak* deitu izan zaien horiek».

—Atentatu bat ematen du...

Tuterako eguzki plaka norvegiarren kontrako ekintza aipatu du norbaitek, Bagenizkio Ekintza Taldeak bere gain hartu zuena. Edota MEHEko Uhin Berriztagarrien kontrako eraso, oraindik inork erreibindikatu gabea.

Ilargiberriri munduaren zama erori zaio bizkar gainera.

«Gerizpe ez zagon. Bart gauean ez dun lotara etorri».

Bere buruari zutik ezin eutsirik, nahasmena baliatuz, aretoa utzi eta bulegora ihes egin du. Hamaika Agirrek segundo batzuk behar izan ditu adiskidea ondoan ez duela jabetu eta izokinaren gisan korrontearen kontra haren atzetik abiatzeko.

10

—Nola egon haiteke horren seguru? Istripu bat izan dun, agian. Eta, izan ez bada ere, nola dakin Bagenizkio Ekintza Taldea tartean dagoela? Eta balego ere... Ez dakin ziur hire semea BETko militantea den ala ez...

—Ez duk lehenbizikoa izan, Hamaika... Eta Gerizpek ez dik gaua etxean pasatu.

—*Climaxbeat* jaia zitenan atzo campusean! Praktiketako gazte-tarik bat bera ere ez dun gaur lanera azaldu...

—Senak esaten zidak Gerizpe tartean dagoela.

—Gaurko hau, ordea, ez din oraindik inork erreibindikatu, Ilargi... Gauzak bere onetik ateratzen ari haiz.

Goizegi da, egia. Slavoj Žižek Unibertsitate Libreko ikasle talde batek epatatzeko asmoz *Slow Terrorism* gisa bataiatu zuen korrontearen barruan sartzen da BET, finean; ekoterrorismoaz eta sabotajeaz

haratago doan taldea da. Eta, *slow* izaerarekin bat eginez, ez dituzte beren «ekintzak» (*atentatu* deitzeari buruz ere badago eztabaidarik akademikoen artean) berehalakoan erreibindikatzeko.

Badirudi Hamaika Agirrek bere umore mikatza berreskuratu duela.

—Begira iezaion alde onetik: orain inor ez dun arduratuko ezpainak jositako haur mutantez eta enparauez...

Orduan ikusi dituzte. Palmondoen artean, koruko boluntarioak. Händelen kantatak abesteko beren burua eskaintzen duten unibertsitateko ikasle gazteak, aje aurpegi nabarmenarekin, *climaxbeat* jaitik bueltan zalantzarik gabe, *Son nata a lagrimar* aria abesten, batere ironia eta gaiztakeriarik gabe, itxura guztien arabera.


11

Gorputzarekin egindako soinu, txalo, igurtzi, txistu, doinu eta hots bristadak baino ez. Kantuak, ulu modulatuak, ezpainak ia ireki gabe jaulkitako hasperenak eta xuxurlak. Oihuak eta oihuen oihartzunak; hain antzinakoak izatearen poderioz etzidamukoak diruditen letania hipnotiko eternalak. Uhinak anplifikatzeko prestatutako dardarteka berezietan gauzatzen diren *climaxbeat* jai guztiak bezala, erabat organikoa da hau ere. Dardartekan ez dago argindar beharrik, ez norberaren arnasketak eragindako dioxidoaz haratagoko mantxa iturriarik. Ez da guztiz baztertzeak ekintzatik zetozele ekarri duten gasolio usainak eragin haluzinogenoa izatea aire garbia arnastera ohitutako dantzarien gorputzetan. Buzoa kedar usainetan bilduta dakarten arren, errearen sunda jaialdiko gazte guztien izerdiarekin nahastu eta xukatu da, erantzukizuna izerdi kolektibo batek xurgatu eta azalaren pean ehotu ondoren ekintzaileenak ez diren gorputz arrotzetatik iragazi eta berriz lurruntzeko. Haiek ez beste inork identifikatu ezin duen usain sekretu hori ote da elkarrengana bildu, bultzatu eta pogo erotiko zorora imantatu dituen droga? Alexdei, Siri, Gerizpe eta gainerakoak trantze geldoan dantzari zebiltzan buzodunekin integratu dira jaialdiko jendetzarekin nahastu orduko. Inoiz ez bezala, elkarren azalen ferekak sexu desiraz haratagoko sugar iraunkor bat sortu du, energia eroale agorrezina, jarraitua eta urgentziarik gabea. Organo bakarra osatzen dute; guztien burutik pasatzen den hari komun bat baino ez da lidergoa. Airean dabilzanak ez dira endorfinak, euren isilpeko hizkuntza duten garun zati mikroskopikoak baizik, hormona pentsalariak. Bata bestearengana makurtu eta besarkatzen diren soin kurbatuak, bezala begiari bezala itsasten zaizkie elkarri. Betazalek olatu batek legez

miazkatzen dituzte begi mintzak, eta, uhina pasatutakoan, harea leun geratzen da, eta erabakia irmo azaleratzen.

Eskumuturrak agerian utzi dituzte guztiek, nork bere Karbono Mantxa lotsarik gabe erakusteko. Intimitate askatua, ego desjosia. Orbanetako batzuek tintarenak dirudite; garatxo ttipiak dira beste batzuk; badira planeta biribilak eta badira erabat irregularrak, izar izateko bokaziorik gabe jaiotako orban errizomatiko kamutsak. Nini-gailuak desaktibatu eta elkarren eskumuturrak laztandu eta musukatu dituzte, eskumuturrak baino ez, baina inorenari muzin egin gabe. Orban guztiak ezberdin, orban guztiak eder. Argi biziagiarekin minduta ixten diren ninien eran, orbanak ttipitzen eta uzkuratzen hasi zaizkiela iruditu zaio Gerizperi. «Badator ekaitza», xuxurlatu du norbaitek. Hodeiak lodi eta beteta datoz. Zerbait lehertzero doa, baina, ninigailuak kenduak dituztenez, zail da noiz gertatuko den aurreikustea.

Lehen tximistak gaua pitzatu orduko, bistan geratu da, instant batez, arimak hezurren azpian duen argi urdina.






ZIRRIBORROAK ETA GERO

Zirriborroak eta gero alternatiba eta utopien etorkizuna irudikatzen duten ipuin laburren bilduma da. «Kintsugi» kontakizunean, Harkaitz Cano idazlea GoiEnerretik abiatzen da, energiarekiko harremana aldatu den etorkizuna irudikatzeko.

GoiEner Taldea. Argindarraren ekoizpena eta banaketa multinazional handien esku dauden honetan, ongi errotutako oligopolio energetikoaren barnean zirrikitu bat bilatu eta pitzadura berdea lantzen duen irabazi asmorik gabeko kooperatiba da: ekoizpen berriztagarria, kontsumo arduratsua eta arrazoizkoa eta gardentasuna ditu gidari, besteak beste. Agian hauxe galdetuko diozu orain zeure buruari: «Nolatan ez nuen nik GoiEner ezagutzen, bere printzipioekin guztiz bat banator? Zergatik dago nire argindarraren faktura balio horiek errespetatzen ez dituen enpresa erraldoi bati lotuta? Noiztik dator inertzia hau? Noiz arte iraungo du?». Kapitalismoaren hertsakortasunaren bertuterik handiena da hori: gure aukerak berez direnak baino gutxiago direla sinetsaraztea.

Harkaitz Cano. Idazlea da. Ia genero guztiak landu ditu: nobela (*Twist, Fakirren ahotsa*), poesia (*Norbait dabil sute-eskaileran*), saiakera (*Zinea eta literatura: begiaren ajeak*) zein antzerkia (*Sisiforen paperak*), baina beti aitortu izan du narrazio laburra duela kuttun (*Neguko zirkua, Beti oporretan*). Sylvia Plath, Hanif Kureishi, Raymond Carver, Anne Sexton eta Allen Ginsberg ekarri ditu euskarara, eta haren lana dozena bat hizkuntzataraz itzulia izan da. Lankidetzaz ugaritan parte hartu du, euskal koreografo, kantari zein musikariekin.

Zirriborroak eta gero **Azala** egonaldi artistikoak garatzeko espazioan sortua da, Lasiera herrian, Araban kokatua dagoen 12 biztanleko herrian hain zuzen, artadi baten mendi magalean. 2008an abian jarri zenetik, lankidetzaz mota anitz sustatu ditu beste erakunde kulturelekin, eta lotura gero eta estuagoa egin nahi du inguru hurbilean egiten diren jardurekin. Fabula hau sortzeko, Azalak «Futurible» saio bat antolatu zuen, bideokonferentzia bidez, 2020ko uztailaren 6an, etorkizun batean zer gertatu daitekeen ikusteko.



GURE ESKER ONA

Mila esker proiektu hau lantzeko beren denbora, ilusioa eta indarra oparitzen diguten guztiei.

Ale honetan, Harkaitz Cano, Arrate Rodriguez, Unai Pascual, Maite Larburu eta, GoiEnerretik, Erika Martínez, Eduardo Urturi, Oier Etxebarria Gutierrez, Susana Cantero, eta beste hainbat lagun eskertzen ditugu proiektuan parte hartzeagatik eta «Futurible» saioan gurekin batera egoteagatik: Iker Diaz de Cerio (Arabar Errioxako olibondoaren eta olioaren sustapenerako elkarte), Maite Fernández Betelu, Garikoitz Fraga (Belleza Infinita), Irene Intxausti Basilio (Teklak), Ula Iruretagoiena eta Maite Telleria (Azala).

GIPUZKOAKO BILDUMA #0

2.300 aleko edizioa. Gipuzkoako hainbat taberna eta iragate-tokitan lor daiteke. Irakurri ez ezik, narrazioa aditzeko aukera ere badago, zirriborroaketagero.net webgunean. Arabako bildumako aurreko bost ipuinak hor ere eskuragarri daude.